Aurreko orrialdeko informazioa kontuan izanik, jarri titulua beheko albiste laburrei. Gogoan izan tituluei eta azpitituluei ez zaiela punturik jarri behar amaieran.

- Hautatu titulu egokiena.

  ☐ *Unibertsitatean sartzeko probak*
  ☐ *Txilen 700 ikasletik gora atxilotu dituzte manifestazioetan*
  ☐ *600.000 ikasle atera ziren kalera.*

SANTIAGO ■ 730 manifestari atxilotu zituzten atzo Txileko hiriburuan doako garraioa eta unibertsitatean sartzeko probak eskatzen ari ziren ikasleen artean. 600.000 ikasle inguru atera ziren kalera eta polizia-indarrekin izandako borroketan 28 lagun zauritu ziren.

  ☐ *Munduko artista guztientzako erakustokia ipini dute sarean*
  ☐ *Webgune berria sortu da.*
  ☐ *Charles Saatsi publizista eta bildumagile ospetsua*

LONDRES ■ Artistek beren lanak ezagutzera emateko webgunea sortu du Charles Saatsi publizista eta bildumagile ospetsuak: www.satchigallery.com. Dagoeneko 1.750 artistak ipini dituzte beren lanak sarean, eta lehen egunetan bisitari mordoa izan du webguneak. Nahi duenak sar ditzake webgunean bere lanak.

- Asmatu eta idatzi titulu egokia.

  .....

  .....

PARIS ■ Bigarren egunez jarraian borrokak izan dira polizien eta gazteen artean Paris inguruko auzoetan. Gazteek dozena bat inguru auto erre eta harriak jaurti zizkieten segurtasun-indarrei astearte gauean. Orotara, 13 lagun atxilotu zituzten.

Hemen beheko galderei erantzunez, idatz itzazu zure albistearen hiru titulu posible.

- **Zer** gertatu da? .....

  .....

- **Zer** eta **non** gertatu da? .....

  .....

- **Zer**, **non** eta **noiz** gertatu da? .....

  .....